


---

# SEDUKZIOAK ETA HAUSTURAK

## SANTI ERASO

Irudi luke gaur nagusi diren kultur politikak gero eta liluratuago daudela ekoizpen eredu jakin batzuekin, hain zuzen ere ekoizpen subjektiboa halabeharrez ikuskizun bihurtzen, obrei testuingurua kentzen eta diskurtso hutsala eta merkantilismoa oinarritzat duten ereduek erakarrita.

Ildo honetatik, museoak, kultur garaikideko zentroak eta arte ekitaldiak, hala nola bienalak eta feriak ugaritzea zeharo lotua dago kultur ikuspegi utilitario batekin; izan ere, ikuspegi honentzat, kulturak batez ere kontsumo pasiborako erakusleihu gisa funtzionatzen du –edo kontsumo aktiborako, baliabiderik badutenentzat-, edo turismoaren sustapenerako, hirien eraberrikuntzarako edo ageriko propaganda politikoa egiteko elementu gisa, inolaz ere ez benetako gizarte eraikuntzara begira dagoen tresnatzat. Ez dugu urrunegi jo behar estrategia hauen paradigma ditugun adibide zehatzak aurkitu ahal izateko. Donostian argazki feria bat finkatu eta sendotu da, eta bildumagile pribatu baten itzalpean erreferente nagusietako bat bihurtzen ari da tabako-fabrika zaharrean eraikitzea aurreikusita dagoen Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa edukiz hornitzeko; tabako-fabrika zaharra hiriaren erdigune topografikoan dago, eta hogeita hamar mila metro koadro baino gehiago ditu erabiltzeko moduan. Bere espazio izugarrietan –oraindik berriro gabe daude-, eta feriarekin bat eginez, bideo-erakusketa bat antolatu dute, *Aktualitate aztertua* izenburupean. Honek azken ondorioetaraino erreproduzitzen ditu internazionalismo artistiko konbentzionalenaren klixek: esperientzia estetikoaren monumentalizazioa, erreprodukzio-tekniken neurritz kanpoko erabilerari esker; ikuslea limurtzeko eta alienatzeko estrategiak garatzen dituzten espazio “liluragarriak” eraikitzea; behatze hutsetik igarotzen ez den elkarrekintza-aukera oro deuseztatzea; kritika indargetzea eta, ezin bestela izan, hiritarren portaeran eta aurkezten diren obrekin duten harremanean mutazio bat ahalbide dezakeen informazio eta dokumentazio oro ezkatutzea eta ukatzea. Baldintza hauetan, ikusleak oso-oso gutxitan ikusiko du bideo bat hasi eta buka, eta eskaintzen dion arreta ere gutxitan izango da bizia eta etenik gabea.



Aktualitate aztertua. Tabacalera 2005

Duela oso hilabete gutxi, azken Zinemaldiarekin bat eginez, Donostian “kultur ekitaldi” bat izan zen –eufemismo hori erabili zuten antolatzaileek, Manifesta Bienala ixtea ospatzeko jai ekitaldia izendatzeko. Ekitaldi hau ere Tabacalera izan zen.

Festa hartan zehar, ehunka gonbidatu izan ziren bertan, Manifestan ikusteko aukera izan zen lanik onenetako bat aurkeztu zuten: *Route 181*, gatazka palestinarrari buruzko dokumental bat, Eyal Sivan eta Michel Khleifik egina. Film hau Artelekun aurkeztu genuen, Gema Martín Muñozek koordinatutako *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* (1) mintegiaren barnean. Baina “kultur ekitaldiaren” antolatzaileek inolako arazorik ez zuten izan lanaren emanaldia zegokion testuingurutik kanpo egiteko eta festa hartan emateko, halako arrote eta estetizatze bat sortaraziz; eta lana apaingarri huts bat izan zen, jaiari zirenak “pintxo” sofistikuak eta izozkiak jaten zituzten bitartean.



Manifesta Jaia. Tabacalera 2004.

Guk, aldiz, dokumentala emateko garaian, arabiar munduan esperientzia subjektiboa gertatzen den eremuko kontraesan soziopolitikoak argitzeko ahalegina egiten ari zen mintegi bat baliatu genuen, ikusle espezifikokoiko konexioa bilatuz.

Proiektu hau lankidetzaren sare zabalago baten barnean sartzen da, eta sare honek hausnarketa jarraitu eta etengabea ahalbidetzen du, nazioarteko lankidetzaren sare zabalean parte hartzen duten eragile guztia sartutako partaidetza prozesuaren bidez. Era berean, ekoizlearekin akordio bat lortu dugu filma editatzeko eta mintegiko partaideen ponentziak eta bertaratuen interbentzioak jasoko dituen argitalpenari eransteko. Material hau guztia eskura dago gure web orrian, eta zuzenean eskaini zen, bere garaian, Internet bidez.



Arabiar irudikapen garaikideak. Eyal Sivan Artelekun.

Kultur eragile eta ekoizle askok hainbat urte daramagu irudia-denbora produzitzeko eta jasotzeko baldintzak atzera pentsatzeko ahaleginean, obrei gutxieneko ikusgarritasun baldintza batzuk bermatze aldera. Ildo honetatik, hainbat formula garatzen ari gara, hartzaileren eta elkarrekintza baldintzarik onenetan gertatzeko behar diren espazio / denbora baldintzen arteko egokitzapen handien eta onena lortzeko. Lan honek eraginkortasun mediatiko txikiagoa eta produkzio prozesu ez hain ikusgarriak dakartza berekin, jakina, ezen prozesu horien oinarria, funtsean, autorearen, obrak sortzen diren testuinguruaren analisiaren, eta subjektu aktibo bihurtzen den hartzaileren arteko konpromisorik handiena lortzea da.



Desadostasunak. Feminismoaren mutazioak. Erakusketa. Diane Torr-en lantegia. Arteleku

Catherine David-ek, Documenta X-en zuzendaria bera, “Desadostasunak”(2) proiekturako elkarrizketa batean duela gutxi esan zuen 90eko urteetan kultura ikusgarri, mediatiko batek are indar handiagoa hartu zuela, zeharo baztertuz gizarte konplexutasunaren produkzioarekin eta transmisioarekin eta gizarte horren akats eta gabeziei buruzko kontzientziatze kritikoarekin zerikusia duen kultur politika mota oro. Ondorioz kultur konpromiso mota orotatik, beti-beti konpromiso politikoa den horretatik halako dimisio orokor bat gertatu zen. 90eko urteen ondotik argi geratu zen, berriz, hurrena: alde batetik badela artearen munduan sektore bat, kultura nagusiaren ikusgarritasun, homogenotasun eta hutsaltasun horrekin bat egiten duena, eta bestetik badirela beste praktika batzuk, etorkizun oparoagokoak inolaz ere, iraupen luzeko prozesuekin eta oso espazio heterogeneoekin loturik. Ildo honetatik Martha Rosler-ek –honixe hartu diot testu honetarako izenburua- azpimarratzen du lan artistikoak ez duela soilik produkzio, erakusketa edo zabalkundean bildu behar, baizik eta baita lan artistikoa bera determinatzen duen testuinguru sozial eta politikoan ere.

Arteari eta kulturari atxiki nahi zaien politikoarekiko eta espazio publikoaren sozializazioarekiko “neutraltasun” horrek esperientzia mota oro pribatizatzeke estrategiak babesten dituen partzialtasun lotsagarria ekar dezake, berariaz edo modu inkontzientean. Gure garaiotan, artea eta kultura ezinbestez gizarte konpromisoan sartuta egon beharrak oztupo ditu halako politika nagusi batzuen eta, hauen ondorioz, zenbait arte eta kultur praktikaren nagusigoaren baldintza objektiboak; izan ere, hauek buru-belarri ari dira atseginkeriazko jarrera batzuk legitimatzen, kultur produkzioan gorantz datozen beste forma batzuen ikusgarritasuna eragozten duen sistema sendotzeaz batera. Eta Marius Babias-ek oso ondo dioen moduan azkeneko Zehar-en argitaratutako bere testuan, buru-belarri ari dira artearen eta kulturaren eginkizuna integrazioarako

---

mekanismo sozio-politiko gisa sendotzen duen sistema iraunarazten, hain zuzen bazterrean utziz abangoardiek artearentzat eta kulturarentzat planteatzen zuten emantzipazio-aukerak askatzeko baliabide gisako eginkizuna.

Kontua da geure buruari galdetzea nola eta noraino den posible beste modu batez pentsatzea eta jardutea. Badirudi kultur praktika batzuei zeharo sakrifizio izaera ezartzen zaiela eta, kasu batzuetan, baita agonikoa ere, iritzi publikoaren kontsensuekiko eta diskurtso politiko nagusiarekiko aurkaritza nabarmenaz. Muga gainditu egin daiteke, ez dago zalantzarik, baina berehala berrezartzen da. Desplazamendu etengabe horretan aukera dugu subjektuaren, hitzen eta gauzen harremanak atzera pentsatzeko, forma berriak eta izateko eta egoteko modu berriak sortzeko, pentsatzeko beste modu batzuk jorratzeko. Asimilazio eta erresistentziaren arteko antagonismo horretan ahalegina egin behar da, halaber, kultur praktikaren igurikapen politikoak areago ditzaketen gizarte produkzioko eta produkzio kolektiboko egiturak pentsatzeko. Eta espazio publikoak bere maila gorena lortzen duen esparru honetan, esperimentaziorako espazioak eta berrikuntza proiektuak mantentzea eta garatzea eragozten duten kultur likidaziorako estrategien aurrean erne egon behar da. Hainbat estrategia politikok horien bazterketa gero eta handiagoa bultzatzen badute ere, bada kultur erresistentziaren aukera berriak eta sare kritikoen eraikuntza jomuga dituen praktika artistiko bat, eta bere bilakaeran aurrera egiten ari da gainera; aipatu sare kritiko horietan, “intelektual espezifikokoak”, zentzu foucaultarrean, elkartu egiten dira bere pentsamenduak, ekintzak eta hausturak modu independentean bideratzeko modua eskainiko dien benetako intelektual kolektibo bat sortzeko.

Ildo honetatik, “Tester”(3) aurrebaldintza politiko hauekin kontsekuentea izan nahi duen proiektu bat da; eta horretarako, berrituriko antolaketa ereduak eta produkzio sistemak kontrajartzen dizkio sarritan suntsitze espiritu hutsetik pentsatuta dagoen kritikaren erretorikari. Kritika konstruktiboa eginez edo norberak eginaz erakutsiz alegia.

Gure ahalegina norabide horretan ari da aurrera egiten. Kontua ez baita kultur ekintza ulertzeko hainbat modu direnik ukatzea, baizik eta berriak azalera atera daitezkeen ahalbidetzea eta beste batzuen desagertzea eragozteko, hain zuzen aniztasunak eta heterogeneotasunak bere tokia eduki ahal izan dezaten Arteleku kokatzen den kultur mapa konplexuan, urte hauetan zehar gizarte ehunari eman dion balio erantsiari eutsiz bide batez.

1. *Arabiar irudikapen garaikideak* Catherine Davidek zuzendutako proiektu bat da, Rotterdamgo Witte de With eta Bartzelonako Fundació Antoni Tàpiesek produzitua, Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatearekiko (UNIA arteypensamiento) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Artelekurekiko lankidetzan.

2.- *Desadostasunak. Artea, politikak eta esfera publikoa estatu espainiarrean* Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bartzelonako Museu d'Art Contemporani-MACBAk eta Andaluziako Nazioarteko Unibertsitate-UNIA arteypensamiento-k koproduzitutako proiektu bat da. [www.desacuerdos.org](http://www.desacuerdos.org)

3.- *Tester* arte proposamen gaur-gaurkoen produkzio eta zabalkundera bideratuta dago, batez ere teknologiaren aukera berriekin lotutakoei dagokienez. Teknologia produkzioko lanabes gisa erabiltzen da, partaideen arteko komunikaziorako tresnatzat, proiektuaren zabalkundera egiten ari direnean zein zabalkunde horretarako baliabide modura. TESTER-ek sorkuntzaren (nazioarteko) toki eremuetan jarri nahi du arreta, nazioarteko zirkuituetan presentziarik edo ikusgarritasunik ez dutenetan alegia, edota ikusizko arteen panorama hegemonikoa dela eta ezezagunak direnetan. Izan ere, sortze jardura atzemateko sistema bat da, prozesuan den proiektu gisa, sare gisa eta produkzio egitura gisa planteatua. Hainbat produkzio adabegiren partaidetza du (Marina Grzinic –Eslovenia-, Oliver Ressler –Viena-, Marcus Neustetter –Johannesburg-, José Carlos Mariategui -Lima-) , eta baita zenbait artistarena ere, tartean baitira honakoak: Tanja Ostojic, Masaki Hirano, Ralo Mayer, Philipp Haupt, Sejla Kamerić, David Thorne, Usha Seejarim, Robin Rode, Kathryn Smith, Stephen Hobbs, Diego Lama, Gabriela Golder, Iván Lozano, Lucas Bambozzi, Yael Katz, Kirmen Uribe, Ibon Saenz de Olazagoitia, Hacklab Leioa, Zoran Pantelic, Kristian Lukic, Trinity Session, Iñaki Arzo, Ando Alonso, Kien Nghi Ha, Shulin Zhao eta Jorge La Ferla.